

2005eko ekainean bidaiarien sarrerak %2 gehitu dira

Bidaiariak igarotako gau kopurua %5 gehitu da aldi horretan.

EUSTATen datuen arabera, 2005eko ekainean 163.004 bidaiarik hartu zuten ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 4.000 gehiagok eta, horrenbestez, %2ko gehikuntza izan zen. Erkidegora etorritako bidaiari kopuruak bilakaera positiboa izan du bai Bizkaian (%8) eta bai Gipuzkoan ere (%1); aitzitik, Araban kopuru hori aurreko urteko hilabetearen aldean %8 gutxitu da.

Estatutik etorritako bidaiarien kopurua %5 gehitu zen 2005eko ekainean; Gipuzkoan %8 gehitu zen eta Bizkaian %7, baina Araban %6 gutxitu zen kopuru hori. Atzeritik Euskal Autonomia Erkidegora etorritako bidaiari kopurua %2 gutxitu da. Araban eta Gipuzkoan atzeritar gutxiago egon da, -%13 eta -%9 hurrenez hurren; Bizkaian, ordea, %11 gehitu da atzeritarren kopurua.

Estatuari dagokionez, Madril, Katalunia, Galizia, Andaluzia eta Aragoitik etorritako bidaiari kopurua gehitu egin zen. Besteak beste Asturias eta Gaztela-Mantxatik etorritakoen kopurua gutxitu egin zen. Atzeritarren artean, Belgika, Italia eta Holandatik etorritakoen kopurua gehitu egin zen. Baina Alemania, Frantzia, Portugal, Erresuma Batua eta USA-Kanadatik etorritakoen kopurua gutxitu egin zen.

Bestalde, 2005eko ekainean 307.485 gau igaro dituzte bidaiariak; hau da, aurreko urteko ekainaren aldean gaua igaro dutenen kopurua %5 gehitu da, guztira 15.000 gau baino gehiago igaro baitituzte. Igarotako gau kopuruaren bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan (%11) eta Araban (%5); Bizkaian aurreko urteko maila berean mantendu da kopuru hori (%0).

Batez besteko egonaldien iraupena %3 gehitu da Euskal Autonomia Erkidegoan. Iraupen horrek gehikuntza garrantzitsua izan du Araban (%14); iaz 1,62 eguneko egonaldiak izan ziren eta aurtengo ekainean 1,84 egunekoak. Gipuzkoan ere gehitu da (%9), iaz 1,82 eguneko egonaldiak izan zirelako eta aurtengo ekainean 1,99 egunekoak. Aitzitik Bizkaian iraupena gutxitu egin da (-%8), iazko 1,95etik aurtengo 1,79ra.

Plazen okupazio maila %2 gehitu da Euskal Autonomia Erkidego osoan, baina logelen okupazio maila puntu bat jaitsi da hiru lurraldeetan. Izan ere, bi indizeek bilakaera negatiboa izan dute Bizkaian.

Hotelen 2005eko lehenengo seihilekoaren balantzea: 2004ko lehenengo seihilekoaren aldean, bai bidaiarien sarrerak bai igarotako gau kopurua gehitu egin dira

Euskal Autonomia Erkidegoko hotelen 2005eko lehenengo seihilekoaren balantzea gehikuntzekin itxi zen, bai bidaiarien sarrerei (%4) bai igarotako gau kopuruari (%5) dagokienez, eta betiere aurreko urteko aldi beraren aldean.

2005eko lehenengo seihilekoan 1.497.118 gau igaro ziren, hau da, aurreko urtean baino 60.000 gehiago. Igarotako gauen gehikuntza hori hiru lurraldeetan eman zen; Araban eta Bizkaian %4 gehitu zen gau kopurua eta Gipuzkoan %5.

2005eko lehenengo seihilekoan 820.369 bidaiari etorri ziren EAera, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 29.000 gehiago. Bidaiarien sarrerak gehitu egin dira Bizkaian (%8) eta Gipuzkoan (%2), baina Araban gutxitu egin da (-%4).

Bestalde, batez besteko egonaldiaren iraupena hobetu egin da: 2004ko lehenengo seihilekoan 1,81 egunekoa izan zen eta 2005eko lehenengo seihilekoan 1,82 egunekoa. Arabak eta Gipuzkoak kopuru positiboak izan dituzte baina Bizkaia ehuneko puntu bat galdu du.

Okupazio maila %41,52tik %42,04ra igaro da 2005eko lehenengo seihilekoan; Araban eta Gipuzkoan okupazioa hobetu egin da baina Bizkaian kontrakoa gertatu da, %41,84tik %40,69ra jaitsi baita.

1. taula: Sei hileko emaitzak

	EUSKAL AE			ARABAIALAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2005	2004	Δ%	2005	2004	Δ%	2005	2004	Δ%	2005	2004	Δ%
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK												
BIDAIARIEN SARRERAK	820.369	791.239	4	132.474	137.593	-4	361.505	335.016	8	326.390	318.630	2
GAUALDIAK	1.497.118	1.431.439	5	236.584	226.782	4	652.623	625.225	4	607.911	579.432	5
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,82	1,81	1	1,79	1,65	8	1,81	1,87	-3	1,86	1,82	2
BETETZE-MAILA	42,04	41,52	1	41,09	39,65	4	40,69	41,84	-3	44,01	41,95	5

Iturria: EUSTAT

Nekazalturismoak: bidaiarien sarrerak gehitu ziren (%2), baita bidaiariek igarotako gauak ere (%2)

Ekainean 8.628 bidaiari izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan, hots, aurreko urteko hilabete berean baino %2 gehiago; bidaiari kopuruak %21eko gehikuntza izan du Araban eta %1ekoa Gipuzkoan, baina Bizkaian %8 gutxitu da. Euskal Autonomia Erkidegora Estatutik etorritako bidaiarien kopurua %3 gehitu da eta atzeritik etorritakoen kopurua %12 gutxitu da.

Ekainean, guztira, 18.965 gau igaro dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan. Beraz, aurreko urteko hil beraren aldean %2 gehitu da kopuru hori; Gipuzkoan urte arteko hazkundea %9koa izan da eta Araban %3koa. Aitzitik, Bizkaian azpisektore honetan igarotako gau kopurua %7 gutxitu da, urte arteko alderaketan arabera.

Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldia %1 gehitu zen Euskal Autonomia Erkidego osoan, 2004ko ekainarekin erkatuta; hain zuzen, orain dela urtebete 2,18 eguneko batezbestekoa izan zen eta aurtengo ekainean 2,20koa. Urtetik urterako gehikuntza hori soilik eman zen Gipuzkoan eta Bizkaian.

Euskal Autonomia Erkidegoko plazen okupazio mailak %4ko beherapena izan zuen eta logelen okupazio mailak %3koa. Bi indizeen beherakada hori soilik eman zen Bizkaian; hain zuzen, lurralde honetan %14ko eta %17ko (hurrenez hurren) bilakaera negatiboa izan zen.

Nekazalturismoen 2005eko lehenengo seihilekoaren balantzea: bidaiarien sarrerak %4 gehitu dira eta bidaiariak igarotako gauak %1

2005eko lehenengo seihilekoan, nekazalturismoetan 40.320 bidaiari izan zen, hau da, aurreko urteko aldi beraren aldean %4 gehiago izan ziren.

92.727 bidaiarik igaro zuten gaua, hots, 2004ko lehenengo seihilekoan baino %1 gehiagok.

Batez besteko egonaldia gutxitu egin da; 2004ko lehenengo seihilekoan 2,38 eguneko egonaldiak izan ziren eta 2005eko lehenengo sei hilabeteetan 2,30 egunekoak. Beherapen hori Bizkaian (-%11) eta Araban (-%5) eman da.

Okupazio maila ere gutxitu egin da: iazko lehenengo seihilekoan %21,01ekoa izan zen eta aurtengo aldi berean %19,93koa. Eta okupazio mailaren gutxitze hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan eman da.

2. taula: Sei hileko emaitzak

	EUSKAL AE			ARABA/ALAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2005	2004	Δ%	2005	2004	Δ%	2005	2004	Δ%	2005	2004	Δ%
NEKAZALTURISMOA												
BIDAIARIEN SARRERAK	40.320	38.670	4	7.087	7.134	-1	13.214	12.364	7	20.019	19.172	4
GAUALDIAK	92.727	91.984	1	14.677	15.564	-6	29.459	30.829	-4	48.591	45.591	7
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,30	2,38	-3	2,07	2,18	-5	2,23	2,49	-11	2,43	2,38	2
BETETZE-MAILA	19,93	21,01	-5	15,50	16,99	-9	20,42	22,46	-9	21,47	21,81	-2

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp

1. taula: hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	06/2005	%	06/2004	%	Δ%	06/2005	%	06/2004	%	Δ%	06/2005	%	06/2004	%	Δ%	06/2005	%	06/2004	%	Δ%
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	307.485	100	292.278	100	5	45.977	100	43.961	100	5	121.977	100	122.377	100	0	139.531	100	125.940	100	11
Estatukoak	212.659	69	194.938	67	9	36.584	80	35.351	80	3	77.650	64	80.682	66	-4	98.425	71	78.905	63	25
Atzerrikoak	94.826	31	97.340	33	-3	9.393	20	8.610	20	9	44.327	36	41.695	34	6	41.106	29	47.035	37	-13
Hiriburua	191.865	62	185.639	64	3	34.609	75	33.162	75	4	80.642	66	80.905	66	0	76.614	55	71.572	57	7
Kostaldea	43.341	14	38.313	13	13	-	-	-	-	-	14.740	12	14.501	12	2	28.601	20	23.812	19	20
Barnealdea	72.279	24	68.326	23	6	11.368	25	10.799	25	5	26.595	22	26.971	22	-1	34.316	25	30.556	24	12
BIDAIARIEN SARRERAK	163.004	100	159.073	100	2	25.055	100	27.163	100	-8	67.989	100	62.862	100	8	69.960	100	69.048	100	1
Estatukoak	112.176	69	107.316	67	5	20.086	80	21.446	79	-6	45.252	67	42.367	67	7	46.838	67	43.503	63	8
Atzerrikoak	50.828	31	51.757	33	-2	4.969	20	5.717	21	-13	22.737	33	20.495	33	11	23.122	33	25.545	37	-9
Hiriburua	102.076	63	101.434	64	1	17.552	70	19.282	71	-9	45.537	67	41.944	67	9	38.987	56	40.208	58	-3
Kostaldea	20.881	13	20.129	13	4	-	-	-	-	-	7.931	12	7.090	11	12	12.950	19	13.039	19	-1
Barnealdea	40.047	25	37.510	24	7	7.503	30	7.881	29	-5	14.521	21	13.828	22	5	18.023	26	15.801	23	14
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,89		1,84		3	1,84		1,62		14	1,79		1,95		-8	1,99		1,82		9
BETETZE-MAILA PLAZAKA	50,76		49,80		2	47,70		46,48		3	45,45		47,89		-5	57,90		53,18		9
Hiriburua	53,87		52,62		2	52,80		50,61		4	48,61		49,26		-1	61,43		58,19		6
Kostaldea	55,87		53,73		4	-		-		-	41,60		47,44		-12	67,86		58,45		16
Barnealdea	42,03		41,95		0	36,86		37,15		-1	39,68		44,42		-11	46,29		41,81		11
BETETZE-MAILA GELAKA	60,46		60,98		-1	58,48		58,67		0	56,62		61,14		-7	65,97		61,88		7
Hiriburua	65,71		64,59		2	65,43		66,84		-2	59,86		62,13		-4	74,45		66,86		11
Kostaldea	53,73		63,08		-15	-		-		-	51,41		57,48		-11	55,86		65,90		-15
Barnealdea	51,79		51,99		0	41,57		38,37		8	50,65		59,34		-15	57,14		51,26		11
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	18.965	100	18.511	100	2	2.975	100	2.884	100	3	5.973	100	6.396	100	-7	10.017	100	9.231	100	9
Estatukoak	16.478	87	15.536	84	6	2.830	95	2.622	91	8	4.931	83	5.306	83	-7	8.717	87	7.608	82	15
Atzerrikoak	2.487	13	2.975	16	-16	145	5	262	9	-45	1.042	17	1.090	17	-4	1.300	13	1.623	18	-20
BIDAIARIEN SARRERAK	8.628	100	8.498	100	2	1.699	100	1.400	100	21	2.694	100	2.921	100	-8	4.235	100	4.177	100	1
Estatukoak	7.829	91	7.587	89	3	1.621	95	1.345	96	21	2.381	88	2.567	88	-7	3.827	90	3.675	88	4
Atzerrikoak	799	9	911	11	-12	78	5	55	4	42	313	12	354	12	-12	408	10	502	12	-19
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,20		2,18		1	1,75		2,06		-15	2,22		2,19		1	2,37		2,21		7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	24,31		25,20		-4	18,71		17,84		5	24,76		28,77		-14	26,37		26,32		0
BETETZE-MAILA GELAKA	26,80		27,66		-3	20,19		19,01		6	26,77		32,20		-17	29,27		28,42		3

Iturria: EUSTAT